

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
43/2008	R5/2011	2011/02/21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ.2004ko ekitaldiko BEZa itzultzea edo konpentsatzea

Ebazpena: R 05/2011

Espedientea: 43/2008

Gasteiz, 2011ko otsailaren 21a

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide direla, erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren arteko eskumengatazka negatiboa, eskumen automatikoei buruzkoa, ondoko auzia argitzeko aurkeztua: bietatik zeinek daukan eskumena ERAKUNDEA (IFZ: (LETRAZ) NNNNNNNN) erakundeari erreklamatzeko duen 2004ko ekitaldiko BEZa itzultzeko edo konpentsatzeko. Arbitraje Batzordearen erregistroa: 43/2008 espedientea).

## I. AURREKARIAK

1. Gatazka honen abiaburua Bizkaiko Foru Aldundiaren idazki bat izan zen; haren bidez Aldundiak ERAKUNDEA (hemendik aurrera "erakundea") erakundearen idazkia bidali zion organo honi, hain zuzen ere eskaera bat: erakunde horrek eskumengatazka aurkeztu nahi zuen 2004ko ekitaldiko BEZaren itzulketa edo konpentsazioaren inguruan.

2. Arbitraje Batzordeak 2009ko apirilaren 3ko P-2/2009 Ebazpenean ondokoak ezarri zituen: batetik, legitimatutako subjektuek (hots, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Estatuko Administrazioak) ez dute aurkeztu gatazkarik; bestetik, gatazka ezin da hartu berez aurkeztutzat EIABEko 13.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, espedientean Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen ezari buruzko adierazpenik, berariazkorik zein

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
43/2008	R5/2011	2011/02/21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ.2004ko ekitaldiko BEZa itzultzea edo konpentsatzea

isilbidezkorik, ez egoteaz gainera ez zegoelako zergadunaren adierazpenik gatazkaren berri ematen duenik EIABEko artikulua horren arabera.

Ondorioz Arbitraje Batzordeak erakundeari hamabost eguneko epealdia ematea erabaki zuen “Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez bideratutako berri-emateko erroreak zuzentzeko eta idazki baten bidez Arbitraje Batzordeari jakinarazteko zer erabaki duen Bizkaiko Foru Aldundiak BEZaren 2004ko ekitaldiko ordain-arazpenaren gaineko eskumenaz, behar izanez gero idazkia berez izapidetzeko gatazka modura, EIABEko 13.3 artikuluan arautu den bezala”.

3. 2009ko maiatzaren 11n erakundeak idazkia bidali zion Arbitraje Batzordeari; hurrengo egunean jaso zen Batzordearen erregistroan. Bertan erakundeak adierazi zuen 2008ko apirilaren 11n (sic, data zuzena apirilaren 21a da) Bizkaiko Foru Aldundiak administrazio egintza baten bidez auzitan ipinitako saldo negatiboaren konpentsazioa ezetsi zuela, eta horrez gainera hauxe eskatu zuen, besteak beste: “Batzordeari aurkez dakiola eskumen-gatazka ebazteko prozedura irekitzeko eskaera formala eta horren bidez Batzordea ebatz dezala zer organok hartu behar duen bere gain kuoten kenkaria”.

4. Idazki hori ikusita Arbitraje Batzordeak, 2009ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, gatazka automatikoa izapidetzerako onartzea erabaki zuen.

5. Espedienteak ondoko egitateak agertarazi ditu:

- Erakundeak 2004ko abenduaren 30ean zerga-egoitza lurralde erkidetik (Madril) Bizkaiko foru lurraldera aldatu zuen (UDALERRIA).
- 2004ko ekitaldiko eragiketen bolumena sei milioi eurotik beherakoa izan zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
43/2008	R5/2011	2011/02/21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ.2004ko ekitaldiko BEZa itzultzea edo konpentsatzea

- 2004ko ekitaldiko BEZaren urteko aitorten-laburpenaren emaitza (390 eredia) diru kopuru bat “konpentsatu beharra” izan zen: ZENBATEKOA euro.

- 2008ko irailaren 19an Bizkaiko Foru Aldundiak BEZaren 2005eko ekitaldiko behin-behineko likidazioaren egintza eman zuen; egintza hartan 2004ko ekitaldiko saldo negatiboaren konpentsazioa ezetsi zuen.

- ZAEARI eskatu zitzaion gatazka eragin zuen kopurua itzultzeko eta Zergak Kudeatzeko Eskualdeko Bulegoak eskaera ezetsi zuen 2008ko apirilaren 25eko ebazpen baten bidez. Ebazpen hura birritan berretsi zen: berraztertzeko bidean (2008ko ekainaren 24ko ebazpena) eta bide ekonomiko-administratiboan (Euskal Autonomia Erkidegoko AEAREN 2009ko otsailaren 26ko ebazpena).

- 2009ko ekainaren 11ko ofizio baten bidez EAEko AEAK ZAEAREN EAEko Zergak Kudeatzeko Eskualdeko Bulegoari eskatu zion bidaltzeko erakundeak 2004ko ekitaldiko BEZa itzultzeko aurkeztutako eskaera kudeatzeko espedientea, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Auzitegi Gorenari bidaltzeko 631/09 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bideratzeko.

6. Administrazio interesdunei gatazka aurkeztu zela jakinarazi ondoren ZAEAK alegazioak egin zituen 2009ko ekainaren 18ko idazki batean (Arbitraje Batzordeak hurrengo egunean jaso zuen erregistroan) eta Bizkaiko Foru Aldundiak gauza bera egin zuen 2009ko ekainaren 18ko idazki baten bidez (hil beraren 23an jaso zen erregistroan).

7. 2011ko urtarrilaren 20an Arbitraje Batzordeak P 1/2011 ebazpena eman zuen; haren bidez ZAEAREN alegazioa baietsi zuen, hain zuzen ere gatazka ezin zela onartu EIABAko 9. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa aintzat hartuta (“inolaz ere ezin da aurkeztu gatazkarik nolaz ere ezin aurkeztu izango da gatazkarik justizia auzitegietan ebatzitako edo ebazteko dauden gaiengatik”), eta gainera

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
43/2008	R5/2011	2011/02/21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ.2004ko ekitaldiko BEZa itzultzea edo konpentsatzea

gatazkaren izapideak bertan behera uztea erabaki zuen "harik eta EIABAko 9. artikuluan aipatzen den prozesu-oztopoa desagertu arte".

8. Ebazpen hori eman ondoren Arbitraje Batzordeak jakin du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2011ko otsailaren 7ko 48/11 Ebazpenaren bidez erabaki duela ez onartzea 631/09 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, uste baitu ez daukala jurisdikziorik hizpide dugun eskumen-gatazka ebazteko, bide egokia Arbitraje Batzordera jotzea da eta, Ekonomi Itunean ezarri den bezala.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak, aurrekarietako 8. idatzi-zatian aipatzen denak, ezabatu egin du Arbitraje Batzordea gatazka honen izapideak etetera behartu zuen prozesu-oztopoa; beraz, izapideei berriz ekin behar zaie eta gatazkaren funtsak aztertu behar dira. Hain zuzen ere, argitu behar da bi administrazio interesdunetatik zeinek daukan eskumena erreklamatzailari BEZaren 2004ko ekitaldiko itzulketa egiteko: ZENBATEKOA euro.

2. Arbitraje Batzordeak bi ebazpen emanak ditu lehendik zergadun baten egoitza aldatu eta ondorioz BEZa kudeatzen duen administrazioa aldatzen denean hark jaso gabe daukan BEZaren saldoak itzultzeko eskumena zer administraziok daukan argitzeko: R 11/2009 ebazpena, 2009ko maiatzaren 5ekoa (espedientea: 18/2008) eta R 12/2009 ebazpena, 2009ko ekainaren 19koa (espedientea: 20/2008). Estatuko Administrazio Orokorrak errekurtsio bana aurkeztu zien ebazpen horiei Auzitegi Gorenaren aurrean; Auzitegi Gorenak 2010eko ekainaren 10eko epai baten bidez ebatzi zuen 378/2009 errekurtsioa eta 2010eko ekainaren 17ko epai baten bidez 529/2009 errekurtsioa.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
43/2008	R5/2011	2011/02/21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ.2004ko ekitaldiko BEZa itzultzea edo konpentsatzea

Beraz, badago jurisprudentziako doktrina gatazka eragin duen auziaz; jarraian laburbilduko dugu. Aipatu ditugun epaiek funtsean Arbitraje Batzordearen ebazpenak berresten dituzte; hau da, epaiek diote BEZaren sistemak eta Ekonomi itunak administrazioen artean saldoak aldatzea eragozten dutela. Hona zer dioen lehen epaiak: “baldin eta subjektu pasiboari ordainarazitako BEZaren kuotak aldatzen badira lurralde jakin bateko zerga-helbidea zuzenean eta aldaketa hori zerga-helbide berriari dagokion zergen administrazioaren aurrean aurkezturiko aitorten-likidazioei badagozkie, nahitaez aldatu beharko litzateke Ekonomia Itunean ezarritako «ordain-arazpena», zeren eta «ordain-arazpena» gutxitu egingo bailitzateke aurretik jasanarazitako kuoten konpentsazioagatik. Gainera, zergapekoak administrazio batean duen zerga-kreditua beste administrazio batera aldatzeak berekin ekarriko luke administrazio bat bidegabe aberastea eta justifikaziorik gabeko kaltea bestearentzat, eta ondare-desitxuratzeko gertatuko lirateke, Ekonomia Itunaren oinarri den zerga-baliabideen multzoaren berdintasunezko banaketaren printzipioarekin bat ez datozenak”. (Zuz. Oin., 3.3)

Epai horiek bat datoz Gipuzkoako Foru Aldundiaren tesiarekin, hau da, haien bidez Auzitegi Gorenak dio BEZaren likidazio-aldia zatitu daitekeela zergadun baten egoitza aldatzen denean, Ekonomia Ituneko 43.Zazpi artikuluan pertsona fisikoez ezarritakoa, hots, egoitzaren aldaketak berehala sortzen dituela ondorioak, pertsona juridikoei analogiaz aplikatuta, eta irizpide hau 27.Hiru artikuluan BEZaren gaineko eskumenaz ezarritakoarekin lotuta.

Laburbilduta azaldu dena dela bide, epaia eman duen sala ondorio honetara heldu da:

“Azaldutakoaren arabera Estatuko Administrazioari dagokio BEZa dela eta zor den saldoa itzultzea, bera zelako BEZa ordainarazteko ahalmenaren titularra hura sortu zenean. Horrenbestez, Estatuko Administrazioak itzuli behar du BEZan zor den saldoa, erakundearen egoitza Gipuzkoako lurralde historikora

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
43/2008	R5/2011	2011/02/21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ.2004ko ekitaldiko BEZa itzultzea edo konpentsatzea

aldatzen den unean. Merkataritza-etxeak ZAEArri itzulketa egiteko eskaera gauzatu dezake, eta, onartu egin beharko da, eskatutako itzulketa zuzenbidera egokitzen den egiaztatzeko ahalmenari kalte eragin gabe, noski. Egia da guk hartutako aukera ez dela hitzez hitz egokitzen BEZaren kudeaketa arautzen duten arauetara, baina hori gai honetan dagoen hutsunearen ondorio hutsa baino ez da. Hutsune hori egongo ez balitz, ez litzateke gatazka hau gertatuko.

“Izan ere, sala honek 2010eko martxoaren 3an 538/2009 errekurtsioaz emandako epaiak azaltzen duen bezala, ezin dira nahasi itzulketarako eskubidea eta eskubide horren erabilera, eta bereizketa horren ondorioa da kasu honetan itzulketarako eskubidea, prozedurari zorrotz atxikita, eskumenaren gaineko arau orokorrak aplikatuz erabili behar dela. Beraz, erakundearen egoitza orain Gipuzkoan dagoenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin behar du itzulketa, itzuli beharreko kopurua benetan ZAEAk jasango badu ere. Subjektu pasiboak egoitza aldatuz gero, BEZaren itzulketarako eskubidea erabiltzeko ezinbestekoa da Itunak ezarritako konexioaren arabera horretarako eskumena daukan administrazioa jotzea, hau da, itzulketa eskatzen duen erakundearen egoitza dagoen tokiko udalera. Baina BEZaren saldoa Estatuko Administrazioetik Foru Administrazioa aldatzea ez denez onargarria zerga horren oinarritzko egituraren eta Ekonomi Itunaren hitzez hitzeko interpretazioaren arabera, askoz errazagoa eta praktikoagoa da zergadunak aurkeztea ZAEArri egoitza lurralde erkidean eduki duen 2006ko lehen hiru hiruhilekoetako BEZaren kopuruak itzultzeko eskaera-idazkia”.

3. Azaldutako jurisprudentiako doktrinak aginduta, Arbitraje Batzordeak kasu honetan adierazi behar du Estatuko Administrazioari dagokiola BEZa dela eta zor den saldoa itzultzea, bera zelako BEZa ordainarazteko ahalmenaren titularra hura sortu zenean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
43/2008	R5/2011	2011/02/21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ.2004ko ekitaldiko BEZa itzultzea edo konpentsatzea

Beste alde batetik, 2010eko ekainaren 10eko epaiak ebazpen hau nola betearazi behar den ezarri du: zergadunak BEZaren kopuruak itzultzeko eskaera-idazkia aurkeztu behar dio ZAEARI.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak hauex

### **ERABAKI DU:**

Estatuko Administrazioak dauka eskumena ERAKUNDEA (IFZ: (Ietraz) NNNNNNNN) erakundeari erreklamatzeko duen BEZaren saldoa itzultzeko, hain zuzen ere 2004ko ekitalditik haren alde dagoen saldoa. Administrazio horrek erreklamaturako saldoa egiazta dezake.

Ebazpen hau betetzeko, zergadunak diru kopuru hori itzultzeko eskaera aurkeztu behar dio ZAEARI.